Serorategian erabilera anitzeko gela egin dute eta Landa Turismo Zentroa egiteko asmoa ere badute. Amaiurko errota kudeatuko duen Rafael Etxebertzek zerbitzu turistikoak eskainiko dizkie bisitariak: turismo informazioa, Donejakue Bideko erromesendako harriera, artisautza-denda,...

Elizaren berrikuntzak 188.000 euroko kostua izan du eta Landa Turismo Zentroak 52.000 eurokoa.

Saneamendu lanak

Saneamendu lanak egin dituzte herrian: gasa, argia, saneamendua, eta ur

garbien kanalizazioa lur azpian sartu dituzte. Karrika Nagusiko zola guztia berritu dute, sarrerako arkutik goiti. Saneamendu lanek 510.000 euroko kostua izan dute.

Herriko Etxea

Herriko Etxea berriro zabalik dago. 2005eko abenduaren 1ean izandako sutearen kalteak konpondu dituzte. Zabalik dira berriz: medikuaren kontsulta, erabilera anitzeko gela, batzarre gela, erromesendako aterpea eta herriko elkar-tea.

Juan M^a Alemanek aurtengoa 4. urtea du eta ez du karguan segituko

AZPILKUETA



RAMÓN URRUTIA

Aparcamiento

Tras la decepción que ha supuesto para la localidad el que no se haya ampliado ni arreglado la carretera de acceso al núcleo urbano, los vecinos han comenzado a realizar obras en auzolan para habilitar un aparcamiento que tendrá una

capacidad para 10 vehículos. Por otro lado ya se han colocado los nuevos columnos en el jardín de la escuela.

El alcalde jurado ha cumplido 4 años en el cargo y quiere animar a todos los vecinos a que se presenten al cargo para el próximo bienio.

ARIZKUN

MARTIN ELIZALDE

Pilotaleku berria

Herriko pilotaleku berria udaberrian inauguratu dute arizkundarrek. Iazko otsailaren 13an haize bolada bortitz batek txapazko teilatua goratu eta elizarraino eraman zuen. Zorionez inork ez zuen minik hartu, baina pilotalekua arras hondatua gelditu zen. Aitzinetik ere arizkundarrek pilotalekua konpontzeko eskaera egina zuten Udaletxean, baina ez behar horrek nahitanahiez obra egitea behartu zuen.

Elkartasuna frontonak orain itxura berria du: teilatua osoa aldatzeaz gain, zola konpondu eta barnekaldea txukundu dira. Lanek 352.740 euroko kostua izan dute. Hasmentan kontrata 317.438 euroren truke eman zitzaizkien Garnica Cortes eta Baztangoiza enpresei, baina azkenean, lanen balioa 23.900 eurotan garestitu da; izan ere, frontonaren saihesta tapatu baita euria ez sartzeko eta hori ez zegoen hasierako proiektuan aurreikusia.

Hasmentako aurrekontuaren % 33 Nafarroako Gobernuak ordaindu du; Arizkungo Herriak, herriko gazteekin erdibana, 11.400 euro paratu ditu; eta



gainontzekoa Baztango Udalak ordaindu du.

Gabriel Laborra elizondarrak egin zuen berritze proiektua eta zuzendaritza lanetan, lansaririk eskatu gabe, Patxi Valer arkitekto arizkundarra aritu da.

Herriko argiztapena

Herriko argiztapena hobetu egin da.

Hirurteko Planaren barnean, herriko hainbat tokitan argia jarri edota zegoena berritu egin da.

Martin Elizalde alkatetza uzteko prest dago bertze arizkundar batek kargua hartu nahi baldin badu. Bertzenaz berak segituko du.

ERRATZU

SANTIAGO IBARGARAI

En la localidad se han llevado a cabo obras necesarias que obligaron a abrir las calles.

Se ha renovado la red de abastecimiento y la red de saneamiento. Además, aunque no estaba incluida en el proyecto inicial, los vecinos corrieron con el gasto de las tuberías para el gas.

Tras las obras, se asfaltó la carretera y se extendió una capa de hormigón de 16 cm. En los tramos afectados por las redes y en las calles carretera Gorostapalo y carretera Izpegi se repusieron las zanjas y se renovó el alumbrado. Las obras que han sido dirigidas por la Oficina Técnica MACLA Ingeniería Civil S.L. fueron adjudicadas a la empresa Navasfalt.

Queda pendiente ahora la renovación de la traida de agua de la red general del

depósito hasta la entrada del pueblo, que ha sido incluida en el Plan Trienal para el 2007. Con la renovación de las tuberías, la presión llegaba demasiado alta y corría peligro de que la instalación reventar, por eso se ha realizado un tramo de 200 metros, costado por el Ayuntamiento hasta que llegue la subvención. Además, los vecinos han colocado reductores para disminuir la presión.

Por otra parte la sala de Batzarres acoge eventualmente el consistorio médico, hasta que se realice el nuevo. Ibargarai confía en que con el dinero de la venta del antiguo consultorio se pueda arreglar el frontón.

Tras 8 años en el cargo asegura que "ya es momento de que llegue alguien para relevarme".



ELIZONDO



RAFAEL OLAIZOLA

En Elizondo se han realizado, en diferentes calles, obras que estaban penden-

tes del Plan Trienal de Infraestructuras Locales 2001-2003.

Se renovaron las redes de abastecimiento y saneamiento desde el depósito de acumulación de Arla hasta la zona noroeste de Elizondo. En la zona este de Elizondo y en el vial que une la C/ Mendinueta y la C/ Salvador, se realizó la segunda fase de renovación de redes de distribución, saneamiento, fecales y pluviales.

Posteriormente se pavimentaron las calles afectadas y se arreglaron las aceras.

Una de las demandas que se realiza desde la localidad es que se arregle de una vez la Plaza de los Fueros. "Las obras se iban a realizar hace cuatro años y todavía están pendientes. A los elizondarras no se nos olvida".

Por otro lado el alcalde jurado no está de acuerdo con el proyecto de biblioteca que se quería realizar en la plaza de Abastos. "Es cierto que la plaza de Abastos está muy deteriorada y hace falta que se arregle, que se adecúe. Pero no entiendo por qué no se le devuelve un papel digno y por qué no se realiza aquí el mercado semanal. Para los mayores de Elizondo tirar o cambiar la Plaza de Abastos es poco menos que un pecado. Se trata de un espacio público del pueblo, el único que tenemos cubierto y semicerrado y no sé por qué no se piensa en otro emplazamiento para la futura biblioteca. El centro de artes escénicas que se iba a realizar contemplaba un espacio para ella y no se realizó y se perdió la subvención

ELBETE

JOSÉ ANTONIO MUÑOZ

Renovación de redes

Los vecinos han tenido que soportar durante meses las obras de renovación parcial de redes de abastecimiento y saneamiento. La inversión ha sido de 114.540,71 € y la aportación del Gobierno de Navarra de 57.527,64 €. La pavimentación de la calle Santa Cruz se realizó con una inversión total de 175.267,69 € (73.461,85 € subvencionados por el Gobierno de Navarra). También se incluyó en proyecto la canalización subterránea por las aceras del alumbrado público, conducción telefónica y distribución eléctrica. Los vecinos aprovecharon la obra para instalar también la canalización de la red de gas. Queda pendiente una parte de la localidad que se realizó con anterioridad, pero en la que no se incluyó el gas. La polémica del aska que derribó un vecino parece solucionada, con la reposición (aunque más pequeña), de la misma.

A la espera de relevo el alcalde asegura que "termino este año".

LEKAROZ



FERNANDO ASTIZ

Ur eskasia

Udaro bezala, aurten ere, ur arazoak izan dituzte herrian. Bertze iturri bat beharko lukete. Herritarrek ordea, ez dakite ura nondik hartu. Espainiako Iparraldeko Ur-konfederazioko teknikariek beraiei utzi diete erabakitzeke ardua. Herritarrek Inartzetako erreka-tik ura har daitekeela uste dute, baina beldur dira, denbora pasatu ahala erreka-aren emaria agortuko dela. Arazoa konpontzeko borondatea dago bai Udalaren aldetik baita Ur-konfederazioaren aldetik ere, baina ez da erraza izanen.

Frontona

Udalak 83.568,92 euroko aurrekontua onartu du Lekarozko Txiki-Polita frontona konpontzeko. Teilatu osoa berria emanen diote eta bertze konponketak ere egingen dituzte.

Saihesbidea

Irurita-Elizondo-Elbete saihesbidea Lekaroztik pasatuko da eta herritarrek kezkatuta daude. Errepide berria nondik pasatuko den eta nori ukituko dion jakin nahi zuten eta horretarako bilera egin zuten udal ordezkariekin.

Fernando Astizek lau urte eman ditu karguan eta aurten utziko du, baina laguntzen segitzeko prest dago. Alkatetzat gazte batek hartzea nahiko luke.

e r b e r e a

herriak
pueblos

IRURITA

MARIBEL SAN JOSÉ

Gizarte bilgunea

Gizarte bilgunea itxita dago uztaillaz geroztik. Etxearen sabaia zurezkoa izanik, su hartzeko arriskua dago nonbait eta horregatik Nafarroako Gobernuak Udalari segurtasun neurriak har zitzen eskatu zion.

Udalak araudia betetzearren eta su arriskua txikitzeko, berniz berezia eman nahi du Gizarte bilguneako sabaian. Ondotik, espediente berria egin behar du.

Pozik ziren herrian Damaso Zabalza Etxearekin. Iruritarrek antzerkia edo musika emanaldiak egiteko tokia zuten, baita elkartzeko txokoa ere.

Uda osoan itxita egon da eta horrek ez dio mesederik egin herriari.

Udaletxean Gizarte bilgunean araudia betetzeko lanean ari direla adierazi diete. Iruritarrek hori lehenbailehen hala izan dadila espero dute.

Pistak

Ezkerreko erreka bidea konpondu dute, Zentraletik Dendaira bitartean.

Auzolanean

Santa Barbara baselizan teiltua konpontzen hasi dira. Sabaia konponduta,



eliza atontzeko lanak auzolanean eginen dituzte.

Proiektuak

Plaza konpontzeko egitasmoa aitzinerat segitzen du. Mariano Oteiza arkitektoak hainbat proiektu egin ditu Arkupe pareko txokoa moldatzeko. Herriak proiektu horietariko bat aukeratu behar du lanak hasi ahal izateko.

Bertzalde, plazako argiztapenaren kable instalazioa lur azpian sartzeko asmoa dute, Erreboteko Plazatik eliza-

raino. Eta herriko argiztapena hobetzeko, karrikako argien beirak aldatzeko asmoa ere badute.

Maribel San Josek
11 urte daramatza Iruritako alkate eta ez du karguan segitzeko asmorik. Herriko alkate izateko baldintza garrantzitsu bat dagoela uste du: alkateak herria maite behar du, lan anitz egin beharko baitu.

GARTZAIN



JESUS ELIZEGI

Obras en el frontón

Al fin han comenzado las obras en el frontón de la localidad, que estaba muy deteriorado. Aunque hay arreglos importantes por realizar, levantar el suelo, poner otro, echar cemento y pulirlo, levantar la pared unos dos metros más y poner una cristalera lateral para proteger el interior de la lluvia, los vecinos esperan que para las fiestas de La Pilarica, se pueda al menos utilizar en parte.

Además del frontón se van a realizar algunos arreglos en las escuelas, que están junto al mismo.

En cuanto a la reelección, a pesar de que el alcalde jurado ha cumplido dos años en el cargo, quiere animar a los vecinos a que se presenten y que alguno coja el relevo.

ARRAIOZ

PEDRO AGERREBERE

Cementerio

La ampliación del cementerio que se va a realizar supondrá casi duplicar el espacio con el que se contaba en la actualidad. Se ha conseguido una subvención de unos 40.000 euros para llevarla a cabo. Además los vecinos han trabajado en auzolan para poder llevar a cabo un aparcamiento junto a la entrada del cementerio. Gracias a estos trabajos, cuyo material costea el Ayuntamiento, de no piderse dar la vuelta con el vehículo, se va a habilitar un espacio como para que puedan aparecer 20 vehículos.

Pedro lleva ya 4 años en el cargo, ha sido reelegido en dos ocasiones y cree que ya ha llegado el momento de pasar el testigo, por eso quiere animar a los vecinos a que se presenten a las elecciones que tendrán lugar en Navidades



ORONoz



BITTOR ELIZAGOIEN

Ur eskasia

Udan bizpahiru aldiz gelditu dira urik gabe. Herria handitzen ari da eta Xolborroko iturritik hartzen duten ura ez da nahikoa. Arazo horri irtenbidea eman nahian, Baztango Udalak Zeberia errekatik ura hartu ahal izateko hitzarmena sinatu zuen Bertizaranako Udalarekin. Erreka horretako ur harguneak, ordea, gaizki eginak daude eta ur araztegia ere noiznahi hautsita egoten da. Gauzak horrela, ura hortik hartuta ere, aldika herrian ur eskasia izaten dute.

Soluzioa: herriko ura berreskuratzea

Saihesbidea egin zenez geroztik, Xolborroko errekatiko bigarren iturria galdu da, ur instalazioa gaizki egin zelakoz. Herriak ur hori berreskuratzea nahi du. Proiektua egiten ari dira eta aurrekontua zenbatekoa izanen den ere galdetu dute. Lanak egiteko Udalaren laguntza izatea espero dute.

Ur eskasiaren arazo konpontzeko badago egon bertze konponbide bat: Errotondoko errekatik ura hartzea. Egitasmo horrek inbertsio handiagoa eskatzen du.

Erreka horrek Almandoz eta Berroetako ur zikinak hartzen ditu, hartara,

handik ura hartu ahal izateko araztegi bat jarri beharko litzateke.

Uraren arazoa konpontzea da Ornoz-Mugairiko lehentasuna. Herrian etxebizitza gehiago egiteko proiektua martxan da eta etxe guzietan ura behar dute.

Auzolanean

Karriken garbiketa eta hainbat pisten konponketa auzolanean egin dituzte. Gaztainzelaia, Uheun eta Burrarteko pistetan harria bota dute eta Gorritiko pistan harria eta porlana.

Bertzetik, Gontzeko bordako aurrealdeko pista breztatu egin dute Udalaren laguntzarekin.

Herritarrek kanposantuko harresia ere auzolanean margotu dute. Hurrengo lana hiltegia teilaberritzea izanen da.

Eskaerak

Ornozko frontoian komunak eta aldagelak egitea.

Trenbidean barandak jartzea.
Orabideko pista konpontzea.

Bittor Elizagoienek ez du berriz kargura aurkezteko asmorik, bertze norbaitek hartuko duela esperantza du. Lehenago kargua etxez-etxe pasatzen zen.

Ohitura horren aldekoa da, herritar guzietan alkate kargua hartu beharko lukete noizbait.

b a s a b u r u a

herriak
pueblos

ANIZ

MARTIN GAMIO

Saneamendu lanak

Anizen saneamendu lanak egin dituzte. Lanak, ordea, ez dira herri osoan egin, errepidetik elizarako aldean bakarrik. Ura lur azpitik sartzearekin batera, tutuak aldatu dituzte, izan ere arras zaharrak ziren eta ura galtzen zuten. Gainera ur hargune guziak karrika nagusira egin dira, horrela, aberia dagoenean akatsa non dagoen atzematea errazago izanen da. Hala ere, kexu dira herrian, behin karririk zabaldua, ez dituztelako ur zikinak eta argindarra lur azpian sartu.

Orain, herriaren bertze aldean saneamendua noiz egingen duten zain gelditu dira, nahiz eta 2-3 urteren buruan euren txanda izatea espero duten.

Martin Gamiok bi urte eman ditu karguan eta bertze bi jarraitzeko prest dago, bertze inork ez badu bere burua aurkezten.

ALMANDOZ

LUIS ROLDÁN

Escuelas

En el mes de julio comenzaron las obras en el terreno que preparó el Ayuntamiento para acoger las nuevas escuelas de la localidad. Las antiguas estaban muy deterioradas y los vecinos habían demandado este nuevo local que finalmente, estará finalizado para el próximo año.

Junto a las nuevas escuelas se va a habilitar además, un local para que los vecinos se puedan reunir.

Roldán lleva dos legislaturas, cuatro años de alcalde jurado. Reconoce que todavía tiene ilusión, aunque menos ganas que al principio, pero es consciente de que hay que esperar unos años para ver los resultados finales de la gestión que se realiza.

BERROETA

RAFAEL ARRETXEA

Erromesendako aterpea

Berroetako eskola erromesendako aterpe bilakatu dute. Baztango Udalak eta Urdazubi eta Baztango Donejakue Bideko Lagunen Elkarteak eskola zaharrean aterpea egiteko akordioa sinatu zuten eta iaz hasi zituzten lanak. Auzolanean paretak bota eta hondakinak bildu zituzten. Ondotik, Baztangoiza enpresak egin ditu gainontzekoak. Hasierako aurrekontua 70.000 eurokoa zen, baina lanak 12.000 euro garestitu dira. Sabaiko habeak pipiak jota aurkitu zituzten eta sabai guzia berria paratu behar izan dute. Cederna-Garalurrek 36.000 euroko dirulaguntza eman du lanak egiteko.

Aterpean 40 lagunendako lekua dago. Bertan, erromesek, 6 euroren truke, lo egiteko tokia, sukaldea, jangela, dutxa eta komunak izanen dituzte erabilgarri.

Bertzalde, eskola zaharreko bi gela herriarendako izanen dira: batzarreak egiteko bata eta herriko biltegi gisa erabiltzeko bertzea.



Ur biltegia

Azken urteotan Berroeta izugarri handitu da, ura hartzeko 15 hargune gehiago dago. Herriko ur biltegi zaharra txiki gelditu da. Arla eta Baola iturrietatik hartzen dute ura. Ura soberan dago, baina ez dago biltzeko tokirik. Horregatik, berroetarrek Turtzuloko parajearen ur biltegia handitzeko eskaera egin zuten Udaletxean eta honez gero egitasmoa Hirurteko Planean onartuta dago.

Rafael Arretxe 4 urtez izan da herriko alkate, ez du karguan segitzeko asmorik.

ZIGA



PABLO ZENOZ

Eskola berria

Aurtengo ikasturtean estreinatuko dute Zigako eskola berria. 2005eko otsailan ekaitza batek kalte handiak eragin zituen etxean. Ondorioz, eskola saioak apezaren etxean izan dira. Lanak udaberrian akitu zituzten eta irailean sartu dira ikasleak eskola berrira.

Behin zaharberrituta, eskolak ez ezik, batzarreak ere egingen dira hor, lehen bezala.



Auzolanean

Iturriko etxe ondoan dagoen latsarria edo labaderoa berreskuratu dute. Dena garbitu eta ura ekarri dute.

Pablo Cenezek aurtengoa bigarren urtea du karguan eta oraindik ez du pentsatu berriz aurkeztuko den edo ez.

liburutegi berria

nueva biblioteca

Zer iruditzen zaizu egitasmo hau? Zure iritzia jakin nahi dugu



KULTUR GUNEEN BERRAZTERTZEA

Arizkunenea eta liburutegi berriaren proiektua

Kultur gune handi bat egiteko egitasmoaren aurrean, eta horrek ekarriko lukeen urtetako xahupenaren aurrean, Udalak, Baztango kultur guneak aztertzea erabaki zuen.

Azken urteotan, udalerrri anitzek diru franko gastatu dute kultur areto handiak egiten eta egun, gune horiek gu txiegi erabiltzen dira.

Baztango Udalak ez zuen hori gertatzea nahi, eta horregatik, kultur guneen erabilpena eta horien birbanatzearen egokitasuna aztertu ditu.

Helburuen artean Elizondo bizigarriagoa egitea dago eta horretarako karririkari eta errekarari betidanik izan duten garrantzia eman nahi zaie. Udalak nahi luke karrিকা udal eraikinen lotune izatea, eta errekarak, herria biltzeko izan duen izaera berreskuratzea.

*Karrিকা eta errekararen
izaera berreskuratuz*

Arizkunenea kultur gunea

Ikerketak eman dituen emaitzen arabera, Arizkunenea kultur gune gisa sustatu beharra dago. Horretarako, bertan eskaintzen diren zerbitzuen berraztertzea proposatzen da.

Bertzalde, nork ez daki Baztango liburutegia txiki gelditu dela? Ezinbertzekoa da kokagune berri batean paratzea.

Liburutegia lekuz aldatuz gero, Arizkunenean toki gehiago geldituko zen eta horrekin batera, Arizkuneneak kultur ekintzak egiteko espazio gehiago izanen luke.

Azkenik, kontuan hartu behar da, Elizondoko Kultur Etxean igogailua jartzzen ari direla, eta horrek, kultur ikuskizunak hor egiteko aukerak zabaldu egingen dituela.

Liburutegi berria egiteko behin behineko udal proiektua

Udalak egindako azterketak, Arizkunenea sustatzearekin batera, liburutegiaren leku aldatzea proposatzen du.

Liburutegi berria, zaharretik hurbil egitea aurreikusten du: Abastos merkatuan. Sarrera Jaime Urrutia karrikatik egingen zaio.

Erabaki horiek hartzeko, kontuan izan dira iriste eta sartze erraztasunak, eta baita bertze zerbitzu publikoekin duen hurbiltasuna ere.

Kokaguneak xarma berezia du. Eraikina orain egoera txarrean badago ere, argi dago Elizondoko txokorik ikusgarrienean dagoela, Jaime Urrutia eta Baztan errekararen artean. Eraikinen alde bat zabalik dago eta bertzea, Trinketeko zubitik ikusten dena, itxia da, argiztatzeko baino, aireztatzeko baliu zuten leiho batzuk bertzerik ez baititu.

*Xarma berezia duen
txokoa, irakurketarako
aprososa*

Nolanahi ere, argia iparretik sartzen da eta irakurtzeko argirik aproposena hori da. Horregatik faktore hori ere kokapen berriaren alde dago.

Eraikin berriak erabat ordezkatu du zaharra. Eraikita dagoen bolumena mantendu egingen da, baina solairu bat beharrean bi egingen dira. Liburutegi berriak 611,18 metro kuadro erabilgarri izanen ditu guztira.



liburutegi berria

nueva biblioteca

¿Te gusta este proyecto? Queremos saber tu opinión

REPLANTEAMIENTO DE ESPACIOS CULTURALES:

Arizkunenea y proyecto de futura biblioteca

Tras comprobar que muchos de los grandes espacios escénicos realizados por otros ayuntamientos en los últimos años son infrutilizados y además conllevan un gasto anual excesivo, desde el Ayuntamiento de Baztan se creyó conveniente realizar un estudio con respecto a los actuales espacios con posibilidades de desarrollar actividades culturales.

Se trata además de llevar a cabo un replanteamiento de los actuales espacios que en el Valle se dedican a la cultura, y sobre todo, en Elizondo.

A esto se une el interés del Ayuntamiento por crear un Elizondo más humano, en el que las mismas calles sirvan de nexo de unión entre edificios municipales y a la vez, se pueda volver la vista al río Baztan.

Del estudio que se ha realizado se desprende que ante todo, se debería poten-

ciar ese gran edificio que es Arizkunenea y al que se le puede dar una nueva vida, replanteando los servicios que hoy se ofrecen en él.

Por otra parte todos los usuarios de la biblioteca son conscientes de que resulta extremadamente reducida. Por eso sería interesante buscar un sitio idóneo, un espacio amplio donde poder ubicarla sin pensar de nuevo en que dentro de unos años ese espacio pueda resultar insuficiente.

Para ello habría que cambiar su situación. Arizkunenea ganaría en espacio y el planteamiento actual podría cambiar. Además en próximas fechas la Casa de Cultura de Elizondo contará con ascensor, un aspecto que desde el Ayuntamiento se consideraba imprescindible, para que el proyecto pueda salir adelante.

El estudio propone el traslado de la actual biblioteca a una ubicación independiente: el antiguo Mercado de Abastos de Elizondo, de titularidad municipal, en la misma calle que la actual, a apenas 80 m de distancia.

El emplazamiento cuenta con un valor

añadido que ha pesado particularmente para la selección del emplazamiento al margen de todas estas características. El Ayuntamiento de Baztan plantea esta ubicación por tratarse de un emplazamiento espectacular, por tratarse de un rincón especial, emblemático, y que en la actualidad apenas se utiliza y está muy deteriorado.

Dentro de las numerosas y bellísimas perspectivas que ofrece el río a su paso por Elizondo, es sin duda esta, emplazada junto a la pequeña presa que se divisa desde el puente de la Plaza Pedro Ziga, una de las más cautivadoras. El edificio actual, muy deteriorado por el mal uso, fue edificado respondiendo exclusivamente a la función a la que se iba a destinar, la de mercado de abastos.


Los huecos en la fachada fueron cubiertos con unos cierres de malla metálica por motivos de seguridad. Por otra parte, la imagen de la fachada desde el citado puente es sustancialmente pobre.

Se trata de un emplazamiento privilegiado, con unas vistas excepcionales, y una iluminación norte, óptima para el estudio y la lectura. Se trata igualmente de una posibilidad única y pionera en Elizondo de recuperar el incomparable patrimonio que supone el río, dignificando su aspecto desde el exterior y aprovechando la maravillosa visión del mismo desde el interior.


Se trata de una propuesta provisional para recuperar un espacio del casco histórico

El edificio que se construiría sustituiría de manera integral al edificio actual. La nueva construcción se erigiría en plantas baja y primera, aprovechando la altura del volumen actual, de una sola planta, que se vería levemente incrementado en altura, si bien manteniendo en todo caso el volumen edificado.

Se generaría de este modo una superficie vinculada al uso de biblioteca de 611,18 m² útiles.



PLANTA BAJA



ALZADO AL NOROCCIDENTE



Características del edificio		Características del terreno		Características del proyecto	
Superficie construida	611,18 m ²	Superficie total	1.222,36 m ²	Plantas	Baja y Primera
Altura máxima	10,50 m	Altura mínima	3,00 m	Uso	Biblioteca
Distancia al río	80 m	Distancia a la calle	10 m	Accesibilidad	Ascensor
Coste estimado	150.000.000 €	Coste por m ²	245.400 €	Financiación	Autofinanciación

agenda 21

agenda 21



21 AGENDA AURRERA DOA

Erronka berria dauka orain: guztion artean Baztan BIZIRIK mantentzeko Ekintza Plana garatzea.

2005eko ekainaz geroztik, Baztango Udala Tokiko 21 Agenda egiten ari da. Egitasmo horren xedea garapen iraunkorra bultzatzea da. Etorkizunean zer nolako Baztan nahi dugun pentsatu behar dugu, eta gero, hori lortzeko bideak zehaztu.

Argi dugu lortu nahi dugun helburua, baina ez da erraza: Baztanen bizi eta lan egiten dugunon artean hemen martxan jarri beharreko garapen estrategia definitu behar dugu. Datozen urteotan gurean bulkatu beharreko egitasmo ekonomikoak eta gizarte, hirigintza eta ingurugiro egitasmoak zehaztu behar ditugu Baztango garapena iraunkorra izan dadin.

Lan horrek guztion laguntza eta konpromisoa behar ditu. Zenbat eta iritzi eta ikuspuntu gehiago, orduan eta baliagarriago izanen da egiten dugun dokumentu edo egitasmoa.

Hainbat urrats eman ditugu eta honezkeru Baztango egoeraren diagnosis egina dugu. Hori izanen dugu abiapuntua hemendik aitzin eman beharreko garapen urratsak zehazteko. Tokiko Ekintza Plana zehaztu behar dugu orain. Hori da gure erronka. Lan horretan zure parte harzea nahi dugu. Horregatik, irailetik urte akabaila artio eginen diren bilkuretan parte hartzera gonbidatzen zaitugu. Deialdiak ohiko bideetatik eginen ditugu, baina gurekin zuzenean harremanetan jartzea nahi baduzu, Cederna-Garalurreko bulegoan zure datuak utz ditzakezu edo e-mail bat igorri «info@prometeasc.com» helbide elektronikora.

LA AGENDA 21 DE BAZTAN SIGUE SU CAMINO

Y se enfrenta a un nuevo reto: elaborar, entre todos/as, el Plan de Acción hacia la Sostenibilidad del Valle.

A lo largo de los últimos meses, por iniciativa del Ayuntamiento de Baztan y con el apoyo del Departamento de Medio Ambiente, Ordenación del Territorio y Vivienda del Gobierno de Navarra y Cederna-Garalur, el Valle viene trabajando, desde junio de 2005, en el diseño y elaboración de su Agenda 21. El objetivo es pensar en el Baztan que queremos para un futuro próximo y tratar de dibujar el camino para alcanzarlo.

En definitiva, el objetivo que perseguimos es claro: tratamos de definir, entre quienes vivimos y trabajamos en el Valle, la estrategia de desarrollo a impulsar en Baztan para que nuestro municipio, forma de vida y hábitos sean cada vez más sostenibles. Buscamos, por tanto, detallar y consensuar el conjunto de proyectos clave a impulsar y ejecutar en el Valle en los próximos años; proyectos de carácter económico, urbanístico, social y medioambiental, porque entendemos que el esfuerzo en todas estas áreas debe ir de la mano si queremos avanzar hacia un Baztan mejor.

Este trabajo requiere, sin embargo, de la participación y compromiso de muchas personas, agentes e instituciones del Valle. Porque cuanto mayor sea la riqueza de ideas, opiniones, visiones, agentes, personas... más fuerza, diversidad, validez y respaldo tendrá el documento resultante; y más opciones para que se convierta en realidad.

Para ello, hemos dado algunos pasos: tenemos ya la "fotografía" de cómo está el Valle desde el punto de vista ambiental, económico, territorial y social. Y con los resultados, avanzamos un poco más: ¿Cuál debe ser la guía que nos marque la ruta a seguir en Baztan? Definamos entre todos/as el Plan de Acción.

Queremos construir y conseguir un Plan de Acción hacia la sostenibilidad de Baztan

Supone un esfuerzo, ¡pero también es ilusionante y creativo compartir ideas, tiempo y espacio pensando en el futuro cercano de Baztan!

Ahora, tras el descanso veraniego, afrontamos un nuevo reto en el proceso de Agenda 21 de Baztan: la elaboración, que queremos sea "participada", del Plan de Acción hacia la sostenibilidad de Baztan: "Teniendo el resultado de la "fotografía", y sabiendo cuáles son las fortalezas, principales retos... del Valle desde el punto de vista económico, ambiental, territorial y social, queremos pensar y detallar la estrategia a seguir y los proyectos que creemos prioritarios para Baztan de cara a los próximos años. Y todo ello, teniendo en cuenta la revisión y actualización que hemos elaborado del Plan Estratégico de Baztan. "Para que todo ello quede plasmado en un documento, bien detallado, y constituya la "hoja de ruta" para Baztan. Pero una vez más, ¡necesitamos de vuestro apoyo y participación!



Queremos construir y conseguir un Plan de Acción hacia la sostenibilidad de Baztan, nuestro, adaptado a nuestra realidad, y al reto de hacer del Valle un lugar más sostenible. Organizaremos reuniones de trabajo, foros ciudadanos... para entre todos/as ir definiendo y puliendo el documento.

Para participar también a través de la oficina de Cederna-Garalur o enviarnos un correo electrónico a: info@prometeasc.com

kirola

deporte



GILTXAURDI KIROL INSTALAZIOA

Giltxaurdi Kirol Instalazioen kudeaketa zerbitzua Sedena SL, Serdepor SL, Hydra Gestión SL eta Prudencio Indurain enpresak osatutako behin behineko enpresa elkarteak hartu du. Elkarte horrek aurkeztutako proposamena izan da onena. Datozen 5 urteetan arduratuko da igerilekuen kudeaketa zerbitzuaz eta urtero 63.960 euro kobratuko ditu lan hori egiteagatik.

Gesport enpresak, orain artio igerilekuak kudeatu dituen enpresak, kontratua eteteko asmoa adierazi zuen bideragarritasun ekonomikoa argudiatuz (87.000 euroko defizita zeukan). Gauzak horrela, eta baztandarroi zerbitzurik gabe ez uzteko, Udalak eta enpresak akordio bat sinatu zuten. Enpresak zerbitzua ematen segitu du lehiaketa berria egin artio. Udalak bitartean, egoera ekonomikoa bideratzeko, instalazioetako 350 abono erosi zituen.

KIROL ANITZEKO ESKOLA

Egun haur guztiak futbolarekin txundituta daude, kirolrik ezagunena da. Baina badaude bertze kirol aunitz ere, eta horien berri izan zezaten, "Kirol anitzeko eskola" egin zen udaberrian Baztango hainbat herritan barrena. Antolatzaileak: Baztan KEko errugbilaria, Laxoa Elkartea, Herri Kirol Taldea, San Francisco Javier Ikastetxea, Baztan Ikastola eta Baztango Udala izan dira. Ekintza horri esker, haurrek, errugbian, laxoan eta bertze eratako herri kiroletan aritzeko aukera izan dute. Eskolaren helburua bikoitza izan zen: batetik, haurrei bertze kirolen berri ematea, eta bertzetik, kirol horietan aritzeko haztegia sortzea.

7 PROBINTZIETAKO RUGBY TXAPELKETA

Ekainaren 24an Euskarians VI. Rugby Txapelketa jokatu zen Elizondon. Euskal Herriko 7 herrialdeetako errugbi taldeak aritu ziren. Lapurdiko taldeak irabazi zuen txapelketa eta Nafarroko taldea hirugarren sailkatu zen. Partidak Giltxaurdi futbol zelaietan jokatu ziren. Jende anitz hurbildu zen txapelketa ikustera, nahiz eta eguraldiak ez gehiegi lagundu. Baztan Kirol Klubak eta Nafarroako Errugbi Federazioak prestatu-riko zikirojate batekin eman zioten akaibaila txapelketari.

INSTALACIÓN DEPORTIVA GILTXAURDI

Una UTE integrada por Sedena SL, Serdepor SL, Hydra Gestión SL y Prudencio Induráin es la nueva encargada de gestionar las instalaciones deportivas municipales Giltxaurdi durante los próximos 5 años.

La UTE ha resultado adjudicataria presentó una oferta para desarrollar el servicio por 63.960 euros al año y una serie de condiciones que la hacían la mejor oferta de las presentadas. La empresa Gesport, la anterior adjudicataria, propuso la rescisión después de cerrar el último ejercicio con un déficit de unos 87.000 euros. El Ayuntamiento compró una serie de abonos para no tener que cerrar las instalaciones hasta que se convocase el concurso y saliese la nueva adjudicataria. El ayuntamiento apuesta por mantener estas instalaciones porque considera que desde su inauguración ha mejorado también el nivel de vida de los baztaneses



ESCUELA MULTIDEPORTIVA

Hoy en día el boom del fútbol eclipsa al resto de deportes. Por eso, y para ofertar a los más jóvenes la oportunidad de realizar otras modalidades deportivas, esta primavera se ha desarrollado en Baztan la "escuela multideportiva". Una escuela organizada por el C.D Baztan de Rugby, Laxoa Elkartea, los Clubes de Herri Kirolak, el C.P San Francisco Javier, la Ikastola Baztan y el Ayuntamiento. En ella los jóvenes han podido

aprender la técnica de deportes como el rugby o el laxoa, así como de otro tipo de deportes rurales. Una iniciativa interesante que se ha desarrollado en diferentes lugares del Valle y que ha tenido un doble objetivo: por un lado, abrir el mundo del deporte a los jóvenes y por otro, crear cantera para los deportes que se practican en el Valle.

TORNEO RUGBY 7 PROVINCIAS

Elizondo acogió el 24 de junio el campeonato de Rugby a siete, Euskarians. Venció en la final el equipo de Lapurdi y Navarra acabó en tercer lugar. La selección de Lapurdi se proclamó campeón de la sexta edición del torneo de rugby a siete Euskarians, que se celebró en el campo Giltxaurdi de Elizondo, después de imponerse en la final al conjunto vizcaíno por 14-7. En la final de consolación, Navarra no tuvo demasiados problemas para imponerse a Guipuzcoa (17-5) y rubricar así con el tercer puesto un gran campeonato de la selección anfitriona.

Al final todos los participantes se reunieron entorno a la mesa para degustar y reponer las fuerzas con un zikiro que preparó la organización del CD Baztan y la Federación Navarra de Rugby.

kultur ekitaldiak eta zerbitzuak

actividades culturales y servicios

IKASTAROAK CURSILLOS

- **Ondarea ezagutuz. Baztango bailara: gizon-ema-kumeak, arkitektura eta paisaia**
Irailaren 18tik 21era egingen da Baztango herri ezberdinetan berrera (Elizondon, Azpilkuetan, Iruritan, Lekarozen, Arizkunena eta Zigan).
- **Acercar el patrimonio. El Valle de Baztan: hombres, arquitectura y paisaje**
El Ayuntamiento de Baztan y la Cátedra de Patrimonio y Arte Navarro de la Universidad de Navarra organizan este curso que se celebra del 18 al 21 de septiembre en Elizondo, Azpilkueta, Irurita, Lekaroz, Arizkun y Ziga.
- **Udazkeneko ikastaroak:**
Internet lantzeko hastapen ikastaroa, Interneten erabilpenak (maila ertaina), Marrazketa eta pintura, Altzarien zaharberritzea, Altzarien zaharberritzea - Zura lantzea eta Haurrendako plastika ikastaroa. Informazio gehiago, Arizkunenea Kultur Etxean, 948-581279.
- **Cursos de otoño: Introducción a la informática e Internet, Aplicaciones de Internet, Dibujo y pintura, Restauración de Muebles, Restauración de Muebles-Talla madera, Curso de plástica para niños. Más información en la Casa de Cultura Arizkunenea 948-581279.**
- **Literatura sormen lantegia:**
Urriaren eta azaroaren. Herri Liburutegiak Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin antolatua. Informazio gehiago 948 580006.
- **Taller creación literaria:**
Octubre y noviembre. Organizado por la Biblioteca municipal y el Servicio de Euskera. Más información 948 580006.

ERAKUSKETAK EXPOSICIONES

- **IÑAKI VERGARA, Argazkiak / Fotografía.**
Irailaren 11tik 28ra, Arizkunenean
Del 11 al 28 de septiembre en Arizkunenea.
- **MARISOL ESPARZA, Margoa / Pintura.**
Irailaren 29tik urriaren 19ra, Arizkunenean
Del 29 de septiembre al 19 de octubre en Arizkunenea.
- **PILAR ALONSO, Margoa / Pintura.**
Urriaren 20tik azaroaren 9ra, Arizkunenean
Del 20 de octubre al 9 de noviembre en Arizkunenea.
- **Ondare europarrari buruzko 2006ko Jardunaldiak**
Bisita gidatuak Arizkunenean, urriaren 7 eta 8an
Jornadas europeas de patrimonio 2006.
Visitas guiadas en Arizkunenea el 7 y 8 de octubre.

KONTZERTUAK CONCIERTOS

- IRURITAKO DAMASO ZABALZA GIZARTE BILGUNEAN CENTRO CÍVICO DÁMASO ZABALZA de Irurita. 19:30etan.**
- Urriaren 15ean / 15 de octubre.
Voces de México.
 - Urriaren 22an / 22 de octubre.
Dúo Tango querido + Pareja baile
 - Urriaren 29an / 29 de octubre.
Trío Veracruz.

Para colaboraciones con el Boletín puedes dejar tus sugerencias en un sobre en cuyo exterior se indique "Boletín" en el buzón del Ayuntamiento, mandarlo por correo o enviar un e-mail a la dirección

bazanerran@baztan.animsa.es

INFORMAZIO GEHIAGORAKO DEITU
HONAKO TELEFONORA: 948 580006
MÁS INFORMACIÓN: 948 580006

bazanerran@baztan.animsa.es

Udal Zerbitzuak

- **BALLEKO ETXEA CASA CONSISTORIAL**
.....948-580006 948-5810 07
Alkatetza / Alcaldía: astearte, asteazken eta ortzegunetan jendeari harrera egingen zaio 9:00 etatik 14:00etara; aurretik administrazio zerbitzuaren ordua eskatuta eta kontsulta gaia eta datu pertsonalak utzita.
- **CEDERNA GARALUR**
.....948-580561
Astearte eta asteazkenetan, aurretik ordua eskatuta.
- **Lan Orientazio Zerbitzua / Servicio de Orientación Laboral:**
asteazkenetan
- **IRATXE** Ortzegunetan, hamabortzean behin
- **Arkitektua / Arquitecto:**
Ostiraletan
- **N.A.N. / D.N.I.** Hilabetean behin
- **Bake epaitegia / Juzgado de Paz**
.....948-452244
- **Baztango Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal de Baztan**
.....948-581204
Asteleheneetik ortzirralera. Orduetgia: Neguan, arratsalde, 15:00etatik 21:00etara. Udan, goizez, 8:00etatik 14:30etara.
- **Kultura eta Kirola/Cultura y Deporte**948 58 12 79
Arizkunenea Kultur Etxeko ordutegia: 9:00etatik 21:45era
Polikiroldegiko ordutegia: 9:00etatik 22:00etara
Igerilekuko ordutegia: Neguan: asteleheneetik ortzirralera 10:00-14:00/16:00-22:00 larunbatetan: 10:00-14:00/16:00-20:00 igande eta jai-egunetan: 10:00etatik 14:00etara Udan: 11:00etatik 20:00etara, egunero
Igerilekuko telefonoa:948-452301